

AKTEA

(2017/01)

EUSKERA BATZORDEA

Bilkurea: Ohikoa
Datea: 2018ko otsailaren 22a
Lekua: Kultura-etxeko batzar-gelan
Hasiera-ordua: 14:07
Amaiera-ordua: 14:56

Bertaratuak

Batzordeburua : Juan Karlos Agirre Santa Maria

Batzordekideak:

Benito Ibarrolaza Munitiz
Aritz Abaroa Cantuariense
Alazne Zumeta Garro
Jon Goikolea Ojinaga

Teknikari aholkularia: Maite Alvarez de Zarate

Idazkaria: Ainara Uriarte Bilbao

Bertaratu ez diranak

Batzordekideak: Aingeru Astui Zarraga
Idoia Platas Arenaza
Sergio Ugalde Zabala

Aztergaiak

GAI ZERRENDEA

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea
- 2.- Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2022) onartzea



- 3.- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP): 2018ko Kudeaketa Plana
- 4.- Garabide Elkartearen 2018rako proposamena
- 5.- Kontratu txikien barri emotea
- 6.- Galderak eta eskariak

Esan-eginak eta proposamenak

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA

Batzordeburu jaunak hasierea emon deutso batzarrari eta, idazkari andreak 2017ko abenduaren 21eko 2017/07 aktea irakurri ostean, onetsi da bertaratutako guztien oneritxiagaz.

2.- BERMEOKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2018-2022) ONARTZEA

Xedea

Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa 2018-2022 aldirako onartzea.

Aurrekariak

Bermeoko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen jardun dau 2004. urtetik aurrera, hainbat plan estrategikoren bitartez. Indarrean dagoan plana 2017an amaitu da eta 2018-2022 epealdirako Plan Estrategikoa landu da, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) gidalerroak kontuan izanda.

Argudioak

Lehenengoa: Lanaren helburu nagusia izan da Bermeoko gizarte-eragileek eta Udalak alkarlanean eta parte hartze prozesu baten bidez, gaur egungo euskerearen egoeraren zertan dan aztertzea eta 2018-2022 aldirako Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzea.

Bigarrena: Plangintza aldi bat amaitu eta hurrengo hasi aurretik gizarte-gogoeta eragitea garrantzitsua da, gizarte-egoera barrien azterketa eginda, hizkuntza politika garatzeko neurriak egokitzen joateko. Horretan, herritarrek zeresan handia daukie eta berariaz antolatu dan parte-hartze prozesuan eratutako 16 herritarren lantaldean eta Euskera Aholku Batzordean jasotako ekarpen eta eretxiak kontuan hartuta egituratu dau Udalak plangintza barria.

Bosgarrena: Plan Estrategikoan zazpi lan ildo zehaztu dira, bakotxa zehazteko helburu estrategikoak, neurriak eta arduradunak eta ekintzak, barriz, urtez urteko kudeaketa planetan jasoko dira.



Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta honako hau proposatzen jako **Osoko Bilkureari**:

Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa 2018-2022 aldirako onartzea.

3.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP): 2017ko KUDEAKETA PLANA

Xedea

2018ko Kudeaketa Plana onartzeko proposamena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Euskera Sailak 2017ko Kudeaketa Plana prestatu dau, urteko ekintzakaz osotuta eta Euskera 8atzordean eztabaidatu eta ontzat emon da 2018ko otsailaren 22an.

Bigarrena: Kudeaketa Planean 2018rako aurreikusten diran egitasmoak eta ekintzak jaso dira, Plan Estrategikoan zehaztutako helburu eta neurriak aurten bideratzeko.

Argudioak

Lehenengoa: Euskerea udalerrian sustatzeko Udalak egiten dauen lana Plan Estrategikoan jasoten da eta Kudeaketa Planen bidez urtez urte garatzen da.

Bigarrena: Plan Estrategikoa tresna dinamikoa da, beharrian barriak aintzat hartzeko, urtez urte plana egokitzeko eta aberasteko aukerea emoten dauelako.

Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau proposatu jako **Osoko Bilkurari**:

LEHENENGOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) 2018ko Kudeaketa Plana onestea.

BIGARRENA: Hartutako erabagiaren barri emotea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Zuzendaritzari.



4.- GARABIDE ELKARTEAREN 2018RAKO PROPOSAMENA

Xedea

Garabide Elkarreak hizkuntza kooperaziorako egindako eskaera.

Aurrekariak

Lehenengoa: Garabide Elkarreak eskaera egin zion Bermeoko Udalari, hizkuntza kooperazioaren alorrean lankidetzan aritzeko 2016an.

Bigarrena: 2016an eta 2017an Bermeoko Udalak proiektu bana finantzatzeko diru laguntza eman zion Garabide Elkarreari, 2016an, Nasa eta Kitxua herrietako *arNASA txiKITXUAK* ikus-entzunezkoa ekoizteko eta 2017an, *Hizkuntzak biziberritzeko gidaritzan ikaskuntza prozesu intentsiboan parte hartzeko* ikasle baten ikasketarako.

Hirugarrena: 2017an emandako diru laguntza zurrizteko, ikastaldiaren txosten akademikoa eta balantze ekonomikoa aurkeztu ditu Garabide Elkarreak.

Laugarrena: 2018rako elkarlan proposamena aurkeztu du Garabide Elkarreak. Zehazki, hiru proiektutarako: *Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu* ikastaroaren laugarren edizioan ikasle baten edo biren parte-hartzea finantzatzea, Kolonbiako Cauca eskualdean emango den *Diplomatura en Estrategias de Revitalización de la Lengua Aplicada a la Comunidad Nasa* laguntzea, bertan ekoiztiko den material didaktikoa finantzatuz eta *Maputxeek mapuzuguna biziberritzeko garatzen ari diren barnetegi-dinamika* sendotzeko finantzazioa.

Argudioak

Lehenengoa: Hiru proiektuen ezaugarriak aztertutik, Maputxeen mapuzuguna biziberritzeko barnetegi-dinamikaren helburua, Bermeo eta Wallmapuren arteko lokarri egonkorra irun eta arnas luzeko lankidetzaren ildoak elikatzea da. Bi herrien arteko elkarlan iraunkorra oinarria litzateke partekatutako lehen proiektu hau eta 2018an jorratuko diren bi lan-ildoak dira helduen irakaskuntza indartu eta sentsibilizazio-kanpainetarako ikus-entzunezko materiala ekoiztea.

Bigarrena: Egindako lana Bermeon ezagutaraztea funtsezkoa izango da eta horretarako, hainbat aukera aurreikus daitezke, beti ere, Garabide Elkarreko kideekin zehaztu beharrekoak, hala nola, udazkeneko Aditu ikastarora datozen ordezkari maputxeek Bermeoko ikastetxeren bat edo batzuk bisitatzea eta hitzaldi bat antolatu edota Zornotzako barnetegira etorriko diren irakasleek Bermeo bisitatu eta sentsibilizazio-ekintzaren batean parte hartzea.

Hirugarrena: Proiektu honetarako proposatutako diru laguntzaren zenbatekoa 6.500 eurokoa da.



Laugarrena: 2018rako elkarlanean jarraitzea interesekoa da Bermeoko Udalarentzat, izan ere, hizkuntza normalizazioaren alorrean erakusten duen aitzindaritzaren ondorioz, badauka zer aportatu eta zer partekatu Garabide Elkarteak bideratzen dituen proiektu eta lan-ildoetan.

Proposamena

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau proposatu jako **Tokiko Gobernu Batzarrari:**

Lehenengoa: Bermeoko Udalak hizkuntza-lankidetzaren alorreko egitasmoen finantziarako programarako duen diru-partidan, Garabide Elkarteak 2018rako proposatu dituen proiektuetatik, honakoa finantzatzea: *Maputxeek mapuzuguna biziberritzeko garatzen ari diren barnetegi-dinamika* sendotzeko, 6.500 €.

5.- KONTRATU TXIKIEN BARRI EMOTEA

Egindako kontratu txikien barri emon da:

- Berbalagun
- Gurasoentzako euskera eskolak
- Etorkinentzako euskera eskolak
- Ikasle etorkinentzako euskera eskolak
- Lilibertso
- Antzerki tailerra

6.- ESKARIAK ETA ITAUNAK

Alazne Zumeta andreak panel elektronikoetan ikusitako ortografia akats baten barri emon dau.

Aritz Abaroak jaunak galdetu dau Euskera Saila jakitun dagoan Urigintza Saila mapa topografikoa egiten dabilela. Euskera teknikariak baietz erantzun deutso, Euskaltzaindiaren gainbegiraketa be eskatu dala

Eta aztertzeko gai gehiago barik, amaitutzat emon da batzarra, goiburukoan aitatutako ordu, egun eta leku berean, eta nik, idazkariak, erabagitakoa eta eztabaidatutakoa jasota geratu daiten, hori guztia idazten dot.

BATZORDEBURUA

IDAZKARIA

